

IRAGARKIA

233. ALDIZKARIA - 2023ko azaroaren 9a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

IRURTZUN

2. poligonoko 548. partzelaren mendebaldeko xehetasun azterlana. Hasierako onespena

Alkatetzaren gaurko ebazpenaren bidez, hasiera batean onetsi da 2. poligonoko 548. partzelaren mendebaldeko xehetasun azterlana, Hydro Extrusión Spain SAUk aurkeztuta. Xehetasun azterlanaren helburua da deskribatzea eraikuntzako gehieneko lerrokaduren aldaketa puntuala.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogeit hamar egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitezten. Jendaurreko aldi inork ez badu alegaziorik aurkezten, agiria behin betiko onetsiko da, bidezko bada.

Irurtzunen, 2023ko urriaren 25ean.–Alkatea, Unai Razkin Iriarte.

Iragarkiaren kodea: L2315192